

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA**

4

**ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENEN ETA
TURISMOKO DEPARTAMENTUA**

2015 otsailaren 23ko FORU AGINDUA, 2015eko denboraldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan ibai arrantzaren aprobetxamenduari buruzko araudia garatzen duena.

Arrantza aberastasunaren sustapena, kontserbazioa eta aprobetxamendu antolatua arautzen dituen Ibaietako Arrantzari buruzko 1942ko otsailaren 20ko Legeak eta 1943ko apirilaren 6ko Dekretuz onartutako Erregelamenduak, nahiz 2014ko apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginak eta Natur Ondarea eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak ezarritakoa betez, beharrezko egiten da, batetik, arrantza-aprobetxamenduko espezieen arrantza-aldiak zehaztea, 2015eko denboraldian haien populazioak babestu eta hobetzeko, eta bestetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan behar bezain babesturik ez dauden edo urriak diren espezieen arrantza debekatzeko.

Kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzaren 42/1985 Dekretuaren bidez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 21/1985 Foru Dekretuaren bidez, biak martxoaren 5ekoak, egindako transferentzia aldaketak, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio gai hori arau bidez garatzea.

Horren ondorioz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Arranzen Kontinentalaren Kon tseiluari ari entzun eta gero, zeina 2015eko otsailaren 10ean elkartu zen, arauzko txostenak ikusirik eta dagozkidan ahalmenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Garatzea ibai eta urtegioko arrantzaren aprobetxamendua arautuko duen arautegia Gipuzkoako Lurralde Historikoan, 2015eko denboraldian.

1. artikulua. Harrapa daitezkeen espezieak.**1.1. Harrapa daitezkeen espezieak honako hauek dira:**

- Izokin atlantiarra (*Salmo salar*).
- Amuarrain arrunta (*Salmo trutta fario*).
- Amuarrain ortzadarra (*Oncorhynchus mykiss*).
- Barboa (*Barbus graellsii*).
- Zamoa (*Cyprinus Carpio*).
- Loina txikia (*Parachondrostoma miegii*).
- Lupina arrunta (*Dicentrarchus labrax*).
- Hondoetako korrokoia (*Chelon labrosus*).
- Platuxa (*Platichthys flesus*).

1.2. 630/2013 Errege Dekretuak eragindako espezieak, 42/2007 Legearen indarraldia hasi aurretik natura ingurunean sartuak izan zirenak, Agindu honetako arauen arabera harrapatu dira (5. artikulua), harik eta aipatu Errege Dekretuaren

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE INNOVACIÓN, DESARROLLO
RURAL Y TURISMO**

ORDEN FORAL de 23 de febrero de 2015, por la que se desarrolla la normativa que regulará el aprovechamiento de la pesca continental en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2015.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley de Pesca Fluvial de 20 de febrero de 1942, por la que se regula el fomento, conservación y ordenado aprovechamiento de la riqueza piscícola, y el Reglamento aprobado por Decreto de 6 de abril de 1943, así como por lo dispuesto en el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril y la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, se hace necesario determinar los períodos hábiles de pesca de las distintas especies con aprovechamiento piscícola para la protección y mejora de sus poblaciones durante la temporada 2015 y vedar la pesca de aquellas otras insuficientemente protegidas o representadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Teniendo en cuenta que tras producirse las transferencias por el Decreto del Gobierno Vasco número 42/1985 y el Decreto Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa número 21/1985, ambos de 5 de marzo, corresponde a esta última el desarrollo normativo en esta materia.

En consecuencia, oído el Consejo de Pesca Continental del Territorio Histórico de Gipuzkoa, reunido al efecto el 10 de febrero de 2015, vistos los informes preceptivos, en su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Desarrollar la normativa que regulará el aprovechamiento de la pesca continental en el Territorio Histórico de Gipuzkoa durante la temporada 2015.

Artículo 1.º Especies Pescables.**1.1. Las especies pescables serán:**

- Salmón atlántico (*Salmo salar*).
- Trucha común (*Salmo trutta fario*).
- Trucha arco-iris (*Oncorhynchus mykiss*).
- Barbo (*Barbus graellsii*).
- Carpa (*Cyprinus carpio*).
- Loina o Madrilla (*Parachondrostoma miegii*).
- Lubina (*Dicentrarchus labrax*).
- Corcón (*Chelon labrosus*).
- Platija (*Platichthys flesus*).

1.2. Especies afectadas por el Real Decreto 630/2013, que fueron introducidas en el medio natural con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley 42/2007, su pesca se realizará de acuerdo con las disposiciones contenidas en la presente Orden

bigarren xedapen iragankorra aplikatuko den eremuaren kartografia egokia eta berariazkoa izan arte.

Espezie horiek honako hauek dira:

Alburno (*Alburnus alburnus*).

Eguzki perka (*Lepomis gibbosus*).

Perka amerikarra (*Micropterus salmoides*).

Seinaledun karramarroa (*Pacifastacus leniusculus*).

2. artikulua. Arrantzara aldiak, egunak eta orduak.

2.1. Arrantzaldiak: aurtengo denboraldian, ibai eta urtegiko salmonidoak harrapatzeko arrantzaldia apirilaren 5etik uztailaren 31ra izango da, biak barne. Araxes, Zelai, Leitzarar I eta Leitzarar II hil gabeko arrantzan egiteko barrutietan, salmonidoen arrantzaldia, berriz, martxoaren 15ean hasiko da. Urkulu, Lareo eta Arriaran urtegietan eta Oria, Oiartzun, Urumea, Santiago, Zelai, Urola eta Ibai-Eder hil gabeko arrantzan egiteko tarteetan, arrantzaldia irailaren 30era arte luzatuko da.

Ziprinidoen arrantza, horretarako izendatutako tarteetan, urte osoan egin ahal izango da.

2.2. Arrantza egunak: arrantzaldiaren barruan, arrantzan egiteko egunak asteko egun guztiak izango dira, jaiegunak ez diren astearteak izan ezik. Arrantza barrutietan, I. eranskinean xedatutakoa beteko da, hor zehaztuko baitira Gipuzkoako Lurralde Historikoko barruti bakoitzeko arrantza egunak.

2.3. Arrantza orduak: egunsentia baino ordubete lehenagotik ilunsentia baino ordubete beranduago arte.

3. artikulua. Gehieneko harrapaketa kopurua.

3.1. Arrantzale bakoitzak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ur guztietan, amuarrain arrunt (*Salmo trutta fario*) espezieko 3 ale harrapa ditzake gehienez eguneko. Arrantza barrutietan eta Arrantza Intentsiboko barrutietan, bertako arauak bete beharko dira, aurrekoaz gain.

3.2. Harrapaketan hautaketarik ez dadin egin, ezingo da, baimendutako tamainako amuarrain bat harrapatzen bada, hura ibaira itzuli, egun osoan hil gabeko arrantzaren modalitatea bakarrik egiten den kasuan salbu.

3.3. Ziprinidoen eta beste espezieen kasuetan, ez dago mugarik.

4. artikulua. Gutxieneko eta gehieneko neurriak.

Harrapa daitezkeen espezieetarako, gutxieneko neurriak hauek izango dira:

– Amuarrain arrunta (*Salmo trutta fario*): 22 cm.

– Barboa (*Barbus graellsii*): 20 cm.

– Baimendutako beste espezie batzuk: Ibaiko arrantzari buruzko Legearen arabera.

– Amuarrain arruntaren kasuan (*Salmo trutta fario*), 35 cm izango da gehieneko neurria.

Arrain baten luzera buruaren aurreko muturretik isats-hegats edo isats hedatuaren erdiko punturaino neurtuko da.

Adierazitakoa baino luzera laburragoa duten arrain guztiak uretara itzuliko dira, handik atera bezain laster.

5. artikulua. Neurri bereziak espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako zerranda eta katalogoari buruzko 630/2013 Errege Dekretuaren inguruan.

5.1. 630/2013 Errege Dekretuaren 7.3 artikulua ezarritakoa betez, Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoan zerren-

(Artículo 5.º) en tanto en cuanto no se disponga de la cartografía adecuada y específica del área donde se aplique la Disposición transitoria segunda del citado Real Decreto.

Estas especies se relacionan a continuación:

Alburno (*Alburnus alburnus*).

Perca sol (*Lepomis gibbosus*).

Black-Bass (*Micropterus salmoides*).

Cangrejo señal (*Pacifastacus leniusculus*).

Artículo 2.º Períodos, días y horas hábiles.

2.1. Períodos hábiles: El periodo hábil para la pesca de salmónidos en aguas continentales durante la presente temporada será el comprendido entre el 5 de abril y el 31 de julio, ambos inclusive. En los cotos de pesca sin muerte de Araxes, Zelai, Leitzarar I y Leitzarar II el período hábil de pesca de salmónidos se iniciará el 15 de marzo. En los embalses Urkulu, Lareo y Arriaran y en los tramos de pesca sin muerte de los ríos Oria, Oiartzun, Urumea, Santiago, Zelai, Urola e Ibai-Eder el periodo hábil se prolongará hasta el 30 de septiembre inclusive.

La pesca de ciprínidos, en los tramos declarados para ello, podrá realizarse durante todo el año.

2.2. Días hábiles: Dentro de la temporada de pesca, se considerarán días hábiles para el ejercicio de la pesca todos los días de la semana, excepto los martes no festivos. En los tramos acotados se estará a lo dispuesto en el Anexo I, en el que se especificarán los días hábiles para cada uno de los cotos de pesca del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.3. Horas hábiles: Las horas hábiles de pesca serán las comprendidas entre una hora antes del orto (amanecer) y una hora después del ocaso (anochecer).

Artículo 3.º Número máximo de piezas capturables.

3.1. El número máximo de ejemplares de trucha común (*Salmo trutta fario*), que en su conjunto se pueden capturar en todas las aguas del Territorio Histórico de Gipuzkoa es de 3 por pescador y día. En los Cotos de Pesca y de Pesca Intensiva se atenderá además a las normas específicas de los mismos.

3.2. Con el objeto de evitar que se seleccionen las capturas, una vez que se haya pescado una trucha de tamaño legal, ésta no se podrá devolver al río, excepto si se está practicando la pesca sin muerte como única modalidad de pesca durante toda la jornada.

3.3. En el caso de ciprínidos y otros, sin límite de capturas.

Artículo 4.º Dimensiones mínimas y máximas.

Las dimensiones mínimas de captura para las especies pescables serán las siguientes:

– Trucha común (*Salmo trutta fario*): 22 cm.

– Barbo (*Barbus graellsii*): 20 cm.

– Otras especies autorizadas: de acuerdo con la Ley de Pesca Fluvial.

– Para la trucha común (*Salmo trutta fario*), se establece una talla máxima de 35 cm.

La longitud del pez se medirá desde el extremo anterior de la cabeza hasta el punto medio de la aleta caudal o cola extendida.

Se restituirán a las aguas, inmediatamente después de extraerse de las mismas, todas las piezas cuya longitud sea inferior a las indicadas.

Artículo 5.º Medidas específicas en relación al real decreto 630/2013 por el que se regula el listado y catálogo español de especies exóticas invasoras.

5.1. En aplicación de lo establecido en el artículo 7.3 del Real Decreto 630/2013, cuando sean capturados o retenidos

datzen diren arrain espezieak harrapatzen badira, arrain horiek ezingo dira natura ingurunera itzuli,, eta arrain horiek desegin edo natura ingurunetik atera egin beharko dira.

5.2. Horregatik guztiagatik, 630/2013 Errege Dekretuan zerrendatzen diren arrain espezie guztietarako ez da gutxieneko neurririk ezartzen, ez eta harrapatze kuporik ere; eta arrantzatu eta berehala, hil egin beharko dira.

5.3. Gipuzkoako ibai sarearen barruan, Urkulu urtegian bakarrik harrapatu ahal izango dira 1. artikuluko 1.2. atalean adierazitako espezieak, 2. artikuluan ezarritako aldi, egun eta orduetan.

5.4. Aurreko azpiatalean aipatutako espezieetako bateren bat uretara itzuliz gero, espezie exotiko bat birsartu dela ulertuko da, 2013ko abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuak, espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako Katalogoa arautzen duenak, ezartzen duenaren ondorioetarako.

6. artikulua. Arrantza tresnak eta elementu lagungarriak.

6.1. Arrantza tresnak: arrainak harrapatzeko, kanabera da arrantza-tresna baimendu bakarra. Oro har, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ibai eta urtegietan, arrantzale bakoitzeko bi kanabera onetsiko dira eta biak eskura izan beharko ditu arrantzaleak.

6.2. Tresna lagungarriak: baimenduta dago «salabardoa» erabiltzea, tresna lagungarri gisa. Kanaberarekin harrapatutakoak uretatik ateratzeko lagungarri gisa bakarrik erabiliko da tresna hori. Hil gabeko arrantzan egiteko tarte eta barrutietan, salabardoa erabili behar da derrigorrean, harrapatzen diren arrainak, amutik askatzerakoan, ahal den gutxien kaltetzeko.

7. artikulua. Beita eta amuak.

7.1. Oro har, debekatuta dago arrain biziak edo hilak beita bezala erabiltzea.

7.2. Debekatuta dago beita natural bezala erabiltzea eta arrantzan egiten den bitartean edukitzea uretako faunako intsektu edo beste ornogabeen arrabak, larbak, pupak, ninfak edo imagoak. Zentzu horretan, espresuki debekatuta dago Gipuzkoako ibai eta erreketatik beita naturalak ateratzea.

7.3. Espresuki debekatzen da «asticot» izeneko arra edo antzekoak beitarako erabiltzea, baita gazta, haragi, arto eta antzekoen masa nahasiak ere. Era berean, debekatuta dago arrantzan egin aurretik edo arrantzan egin bitartean uretara beita botatzea.

7.4. Gipuzkoako ibai eta erreketan kirol arrantzan egitean ezin da arrantza-tresna garrangadunik erabili; aparailu horiek erabil daitezke urtegietako arrantzarako.

7.5. Gainera, hil gabeko arrantzan egiteko tarteetan, barrutiak nahiz libreak izan, honako hauek bakarrik baimentzen dira: euli artifiziala bere modalitate guztietan (euli lehorra, ninfa, serpentina eta euli itoa) eta koilara edo arrain artikulatuak («rapala» eta antzekoak), amu bakarrarekin eta garrangarri gabe, beren modalitate guztietan.

7.6. Era berean, eta tamainaren arabera aske utzi behar den amurrairekin harrapaketak zaintzeko, kirol arrantzan egiten bada beita naturalarekin praktika hori baimendua dagoen tarteetan, Urkulu urtegian izan ezik, amuek gutxieneko neurri hauek izango dituzte: 20 mm luze eta oinarrian 7 mm zabal.

7.7. Gogorazten da izokin-ibaietan (Bidaso, Urumea, Oria, Leitzar, ibaitik behera, eta Leitzar ibai) debekatuta

ejemplares de especies de peces incluidas en el Catálogo de especies exóticas invasoras, no podrán ser devueltos al medio natural, y deberá procederse a su eliminación o retirada del medio natural.

5.2. Debido a lo anterior, para todas las especies de peces que se vean afectadas por el Real Decreto 630/2013, no se establece talla mínima ni cupos de captura, debiendo sacrificarse inmediatamente después de ser pescadas.

5.3. Dentro de la red fluvial guipuzcoana, únicamente se autoriza la pesca de las especies referidas en el apartado 1.2 del artículo 1.º en el embalse de Urkulu dentro de los períodos, días y horas hábiles establecidas en el artículo 2.º.

5.4. La devolución a las aguas de las especies referidas en el subapartado anterior se considerará introducción de especies exóticas, a efectos de lo dispuesto en el Real Decreto 630/2013, de 2 de agosto, por el que se regula el Catálogo español de especies exóticas invasoras.

Artículo 6.º Artes de pesca y elementos auxiliares.

6.1. Artes de pesca: El único arte de pesca autorizado para la captura de peces es la caña de pescar. Con carácter general, en los ríos y masas de agua del Territorio Histórico de Gipuzkoa solamente se admitirán dos cañas por pescador, debiendo estar al alcance de la mano.

6.2. Elementos auxiliares: Se autoriza el empleo del elemento auxiliar llamado «sacadera» o «salabardo». Este elemento se empleará exclusivamente como ayuda para extraer de las aguas las capturas efectuadas con las cañas. En los tramos y cotos de pesca sin muerte, con el objetivo de dañar lo menos posible los ejemplares capturados al soltarles del anzuelo, será obligatorio el uso de la «sacadera» o «salabardo».

Artículo 7.º Cebos y anzuelos.

7.1. Con carácter general se prohíbe la utilización de peces vivos o muertos como cebo.

7.2. Como cebos naturales se prohíbe el uso y la tenencia durante la pesca de toda clase de huevos, las larvas, pupas, ninfas o imagos de insectos u otros invertebrados que pertenezcan a la fauna acuícola. En este sentido, se prohíbe expresamente la extracción de cebos naturales de los ríos y regatas de Gipuzkoa.

7.3. Se prohíbe expresamente la utilización como cebo del gusano llamado «asticot» o semejantes, y las masas aglutinadas de queso, carne, maíz y similares. Asimismo, se prohíbe cebar las aguas antes o durante la pesca.

7.4. Para la práctica de la pesca deportiva en los ríos y regatas de Gipuzkoa queda prohibido el empleo de todo tipo de aparejos de pesca con arponcillo, aparejos que, sí podrán seguir utilizándose cuando el ejercicio de la pesca se realice en los embalses.

7.5. Además, en tramos declarados como «sin muerte», sean acotados o libres, solo se autoriza el uso de la mosca artificial en todas sus modalidades (mosca seca, ninfa, streamer y mosca ahogada) y de la cucharilla o peces articulados (rápala o similares), con un solo anzuelo y sin arponcillo, en todas las modalidades.

7.6. Asimismo, y con objeto de proteger las capturas de trucha común que, en razón de su tamaño, deban ser liberadas, cuando la práctica de la pesca deportiva se lleve a cabo con cebo natural en los tramos en que esta práctica esté autorizada, y con la única excepción del embalse de Urkulu, los anzuelos utilizados deberán medir al menos 20 mm de longitud total y 7 mm de anchura en la base.

7.7. Se recuerda la prohibición de pescar en los ríos salmoneños (Bidaso, Urumea, Oria, aguas abajo del río Leitzar, y el

dagoela arrantzan egitea presetatik eta eskaletako sarreretatik 50 m baino gertuago, eta amuarrain-ibaietan 25 m baino gertuago.

8. artikulua. Dokumentazioa.

Gipuzkoan ibaietan arrantzan egin ahal izateko, honelako agiri hauek behar dira, 1997ko urriaren 7ko 216/97 Dekretuaren arabera (1997ko urriaren 23ko 203 zk. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*):

- Ibai arrantzarako erkidegoko baimena.
- Dagokion urteko tasaren ordainagiria.
- NA edo pasaporte, eta 16 urte baino gazteagoen kasuan, haien nortasuna frogatzen duen edozein agiri.
- Arrantza barrutietan arrantzatzeko dagokion baimena.

9. artikulua. Arrainen bizitza babestea.

Ondorengo debekuak ezartzen dira:

9.1. Seinaleztatuta dauden errun aldeetan uretan sartzea, apirilaren 30era arte, egun hori barruan dela.

9.2. Legezko neurrira iristen ez den amuarrain bat harrapatzu gero, eta arrainari ezin bazaio amua kendu hari kalte larria egin gabe, amuarrainari haria moztuko zaio ahotik ahalik eta gertuen, eta aske utziko da.

9.3. Arrantza errazteko asmoz edo asmo hori gabe, edozein prozedura erabiliz harrizko, egurrezko edo beste material bateko oztupo edo barrerak jartzea, edo ubideak nahiz ur-ema-riak aldatzea.

9.4. Uren emaria gutxitzea, ubideak aldatzea edo uretako landaretza hondatzea.

9.5. Honako hauek erabiltzea: elektrizitate indarrez hiltzen edo geldiarazten duten aparatuak, argi iturri artifizialak, lehergailuak, eta gai pozoitsuak, geldiaraztekoak, moteltzaileak, erakargarriak eta uxatzaileak.

9.6. Honako hauek erabiltzea: atzaparrak, kizkiak, hiruortzak, krakoak, karpinak, fitorak, arpoiak, xederak, baheak, per-tolak, banakak, esku-sareak, tertzak, salabardoak, hondoari edo urbazterrari itsatsitako amu-hariak edo zurdak, eta antzeko tresnak.

9.7. Honako hauek erabiltzea: egitura zurrun eta iraunkorrekoak ez diren flotazio-aparatuak, egur-sortak, baltsak, ohol-tza eta abar.

9.8. Eskuz arrantzan egitea edo arrainen aterpe diren harriak kolpatzea.

9.9. Arrantzan egitea su-armaz, aire konprimatuzko armaz edo beste gas batzuek dabilzan armaz, baita uztaz edo balez-taz arrantzan egitea ere.

9.10. Gipuzkoako Lurralde Historikoko ibai eta urtegitan uretako edozein espezie sartzea edo askatzea, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentuaren beharrezko baimena izan gabe.

10. artikulua. Arrantza barrutiak.

2015eko denboraldian, Gipuzkoako Lurralde Historikoko arrantza barrutiak I. eranskinean ezarritakoak izango dira.

11. artikulua. Ziprinidoen arrantza.

Orokorrean ezarritako garaian harrapatu ahal izango dira, honako tartean izan ezik: Urola ibaian, Zestoako bainu-etxe-ko zubi zaharretik Aizarnazabalgo Etxabe auzoraino doan tartean eta Oria ibaian, presa puzgarririk eta oinezkoen zubiraino doan tartean. Horietan ziprinidoak arrantzatzea urte osoan baimen-duta izango da.

12. artikulua. Karramarroak.

Arrantzan debekaturik jarraitzen du. Gipuzkoan, karramarro seinalehunaren aprobetxamendua arautuko duen berariazko araudia dagokion Foru Agindu bidez onartuko da.

río Leitzaran) a menos de 50 m de las presas o de las entradas de las escalas, y en los trucheros a menos de 25 m.

Artículo 8.º Documentación.

Para poder ejercitar la pesca fluvial en Gipuzkoa, y de acuerdo con el Decreto 216/97, de 7 de octubre (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 203, de 23 de octubre de 1997), son necesarios los siguientes documentos:

- Licencia autonómica de pesca fluvial.
- Justificante del pago anual de la tasa correspondiente.
- D.N.I. o pasaporte, y en el caso de los menores de 16 años, cualquier documento que acredite su personalidad.
- En el caso de acotados el pase correspondiente.

Artículo 9.º Protección a la fauna piscícola.

Se establecen las siguientes prohibiciones:

9.1. Queda prohibida la entrada en el agua en las zonas de freza debidamente señalizadas hasta el 30 de abril inclusive.

9.2. Cuando se haya capturado una trucha de talla inferior a la preceptiva y la extracción del anzuelo sea imposible sin dañar gravemente al pez, se cortará la línea lo más cerca posible de la boca y se liberará la trucha.

9.3. Instalar por cualquier procedimiento obstáculos o barreras de piedra, madera u otro material, o la alteración de cauces o caudales, para facilitar o no la pesca.

9.4. Reducir el caudal de las aguas, alterar sus cauces o destruir la vegetación acuática.

9.5. Utilizar aparatos electrocutantes o paralizantes, fuentes luminosas artificiales, explosivos y sustancias venenosas, paralizantes, tranquilizantes, atrayentes o repelentes.

9.6. Utilizar las garras, garfios, tridentes, gamos, grampines, fitoras, arpones, garlitos, cribas, butrones, esparaves, remangas, palangres, salabardos, cordelillos, sedales durmientes y artes similares.

9.7. Emplear aparatos de flotación tal como haces de leña, balsas, tarimas etc. que no sean de hechura rígida y permanente.

9.8. Pescar a mano y golpear las piedras que sirven de refugio a los peces.

9.9. Pescar con armas de fuego, de aire comprimido u otros gases, así como con arcos, ballestas o artes similares.

9.10. Introducir o soltar cualquier especie acuícola en las masas de agua continental del Territorio Histórico de Gipuzkoa, sin contar con la debida autorización del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo.

Artículo 10.º Cotos de Pesca.

Los cotos de pesca para la temporada 2015 que se establecen en el Territorio Histórico de Gipuzkoa son los indicados en el Anexo I.

Artículo 11.º Pesca de Ciprínidos.

El período hábil para su pesca coincide con el general, a excepción de los tramos comprendidos entre el puente viejo del Balneario de Zestoia y el barrio de Etxabe en Aizarnazabal, en el río Urola, y entre la presa hinchable y el puente peatonal en el río Oria en Tolosa, en el que la pesca de ciprínidos se permitirá durante todo el año.

Artículo 12.º Cangrejos de río.

Permanece prohibida su pesca. La normativa específica para el aprovechamiento del cangrejo señal en Gipuzkoa se establecerá mediante la correspondiente Orden Foral.

13. artikulua. Hil gabeko arrantzan egiteko tartearak.

Hil gabeko arrantzan egiteko ondoko tarte hauek ezarri dira:

Oiartzun ibaia: Ugaldetxotik ibai-ahoraino.

Urumea ibaia: Lastaolako industrialdera doan zubitik Ergo-biko zubiraino.

Santiago erreka (Aia): jaiotzen denetik Indaux enpresaraino.

Leitzarar ibaia: «Truchas Erreka» arrain haztegiko presatik ibai-ahoraino.

Asteasu ibaia: Arraiaga errekatik Oria ibai ahoraino.

Zelai ibaia: Belauntzako zubitik, Oria ibaian isuri arte.

Araxes ibaia: Txaramako presatik Oria ibaian isuri arte, amuarrain ortzadarrak ateratzea baimentzen da soilik, eta Foru Agindu honen II eranskinean ezarritako kupoa errespetatu beharko dira. Tarte honetan, honako hau bakarrik baimentzen da: euli artifiziala, bere era guztietan (euli lehorra zartadaz, ninfa zigorrez eta euli itoa «buldó» edo buiaz), eta koilara edo arrain artikulatuak, amu bakarrarekin eta garrangarik gabe, modalitate guztietan; beita naturala, Foru Agindu honen 7.1, 7.2, 7.3 eta 7.6 artikuluetan ezarritakoa errespetatuz. Azken modalitate horretan, derrigorrezkoa izango da amu bakarra eta garrangarik gabe erabiltzea, baita salabardoa ere.

Agauntza ibaia: Iribe errota presatik (Irutxiki) Senpereko zubiraino.

Oria ibaia: Ordizian Amundarain ibaiaren bokaletik Usurbilgo Txokoalde zubiraino.

Urola ibaia: Azkoiti-Azpeitiko Hondakin Uren Araztegitik Zestoako bainu-etxearen zubi zaharreraino.

Ibai-Eder ibaia: Zapatari baserritik Urolako ibai-ahoraino.

Tarte horietan harrapatutako arrainak uretara itzuli beharko dira atera bezain laster.

14. artikulua. Debekueko errekek eta errekatxoak.

Foru Agindu honen III. eranskinean azaltzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan, 2015eko denboraldian, arrantzarako debekatzen diren ibai eta tartearak.

Debekatu egiten da, era berean, zentral hidroelektrikoetara eta errotetara doazen kanaletan arrantzan aritzea, baita haien isurbideetatik behera doan 25 metroko tartean ere.

15. artikulua. Arrantza intentsiboko barrutiak.

Agauntza, Araxes eta Leitzarar ibaietako arrantza intentsiboko barrutiak irekita egongo dira 2015eko apirilaren 5ra arte eta 2015eko urriaren 3tik aurrera.

Oria ibaiko arrantza intentsiboko barrutia irekita egongo da 2015eko abuztuaren 1etik urriaren 3ra arte.

Debekuei buruzko Foru Agindu honetako II. eranskinean barruti horien funtzionamendu erregimena arautzen da.

16. artikulua. Merkaturatzea.

Debekaturik dago Lurralde Historiko honetako uretan harrapatutako amuarrain arrunta merkaturatzea. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 1990eko irailaren 25eko Aginduaren arabera (1990eko urriaren 3ko 199 zk. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*), debekatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko guztietan edo

Artículo 13.º Tramos de Pesca sin muerte.

Se establecen los siguientes tramos con la modalidad denominada de pesca sin muerte:

Río Oiartzun: desde Ugaldetxo hasta la desembocadura.

Río Urumea: del puente de acceso al polígono industrial de Lastaola hasta el puente de Ergobia.

Regata Santiago (Aia): desde su nacedero hasta las instalaciones de la empresa Indaux.

Río Leitzarar: desde la presa de la piscifactoría «Truchas Erreka» hasta la desembocadura en el río Oria.

Río Asteasu: desde la regata Arraiaga hasta la desembocadura en el Oria.

Río Zelai: desde el puente de Belauntza hasta la desembocadura en el Oria.

Río Araxes: desde la presa de Txarama hasta la desembocadura en el río Oria, únicamente se autorizará la extracción de ejemplares de trucha arco-iris, respetando los cupos establecidos en el Anexo II de la presente Orden Foral. En este tramo sólo se autoriza el uso de la mosca artificial en todas sus modalidades (mosca seca, ninfa, streamer y mosca ahogada) y de la cucharilla o peces articulados (rápala o similares), con un solo anzuelo y sin arponcillo, en todas las modalidades, así como la pesca con cebo natural respetando lo establecido en los artículos 7.1, 7.2, 7.3 y 7.6 de la presente Orden Foral, siendo obligatorio, en esta última modalidad, el uso de un solo anzuelo y sin arponcillo, así como de la sacadera.

Río Agauntza: desde la Presa de Iribe errota (Irutxiki) hasta el Puente de Senpere.

Río Oria: desde la desembocadura del río Amundarain en Ordizia hasta el puente de Txokoalde en Usurbil.

Río Urola: desde la Estación Depuradora de Aguas Residuales (EDAR) de Azkoitia-Azpeitia hasta el puente viejo del Bañerío de Zestoa.

Río Ibai-Eder: desde el caserío Zapatari hasta la desembocadura en el río Urola.

Los peces que se capturen en dichos tramos deberán ser restituidos a las aguas sin demora.

Artículo 14.º Tramos vedados.

Los ríos y tramos vedados para el ejercicio de la pesca en aguas continentales del Territorio Histórico de Gipuzkoa durante la temporada 2015 serán los que figuran en el Anexo III de la presente Orden Foral.

Igualmente quedan vedados para la pesca los canales de derivación de las centrales hidroeléctricas y de los molinos, así como un tramo de 25 m aguas abajo de la salida de sus canales de desagüe.

Artículo 15.º Cotos Intensivos.

Los cotos de pesca intensiva de los ríos Agauntza, Araxes y Leitzarar estarán abiertos hasta el 5 de abril de 2015 y desde el 3 de octubre de 2015.

El coto de pesca intensiva del río Oria estará abierto desde el 1 de agosto hasta el 3 de octubre de 2015.

En el Anexo II de esta Orden Foral de Vedas se regula el régimen de funcionamiento de estos acotados.

Artículo 16.º Comercialización.

Se prohíbe la comercialización de la trucha común procedente de capturas efectuadas en aguas de este Territorio Histórico. Asimismo y según la Orden de 25 de septiembre de 1990, del Consejero de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 199, de 3 de octubre de 1990), se prohíbe la comercialización in vivo del cangrejo de río de cual-

zein espezieetako ibai karramarroa bizirik merkaturatzea, eta baita harrapatutakoak merkaturatzea ere.

17. artikulua. *2015. urterako arrantza baimenak.*

Gipuzkoako arrantza barrutietara joateko baimenak Gipuzkoako Arrantza Federazioan urtero egiten den zozketa baten bidez emango dira. Arrantza baimena eguneratuta duten arrantzale guztiek parte hartu ahal izango dute zozketa horretan.

Zozketan parte hartzeko eskaera orriak Gipuzkoako arrantza elkarteetan eta Arrantza Federazioan jaso ahal izango dira. Eskaera horiek Federazio horren bulegoetan aurkeztu ahal izango dira (Anoeta hiribideko 5 zk., 129 lokala, 20014-Donostia), abenduaren 1etik 31ra arte.

Eskaera eginez gero, honako barruti hauetara sartu ahal izango da: Leitzarano I eta II, Araxes, Arantzazu, Lareo, Arriaran, Sallobente, Zelai eta Leitzarango karramarro seinaleduaren barrutia. Arantzazu, Lareo eta Arriaran barrutietan Federazioan egindako zozketan soberan gelditu diren baimenak ere zozketa bidez emango dira, arrantza elkarte hauetan: Arantzazuko barrutikoak Oñatiko Pago-Uso elkarteak, eta Lareo eta Arriaran barrutikoak Beasaingo Aitzorrotz elkarteak. Oriako barrutian, Federazioak azalduko du eguneko baimenak eskuratzeko lekuak.

Gipuzkoako barrutietara arrantzara joateko ezinbesteko baldintza izango da eskaera egin aurreko urtebetean arrantzako araudia urratzeagatik zigortuta ez egotea.

18. artikulua. *Harrapaketa parteak.*

Gipuzkoako arrantza barrutietan arrantzan egiteko baimenak erabili ondoren, egindako harrapaketen berri eman beharko da derrigorrean. Horretarako, arrantzaleak, nahiz eta baimena ez erabili eta nahiz eta ezer ez harrapatu, Arrantza Federazioari harrapaketen parteak aurkeztu beharko dio arrantza eguna pasa eta ondorengo 15 egunen barruan. Beharkizun hori ez badu betetzen, ez zaio baimen berririk emango ez denboraldi horretan ez hurrengoan.

Gipuzkoako barrutietan harrapatutako amuarrainen datuak baimenarekin batera doan harrapaketa orrian jaso beharko dira, arrantzatu eta berehala.

19. artikulua. *Bestelako neurriak.*

Gorabehera klimatiko, biologiko edo bestelakoengatik arrainei egin dakizkiekeen kalteak eragoztearren, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentuak agindu honen bidez erregulaturiko edozein alderdi aldatu edo garatu ahal izango du, eta baita egoki deritzen beste batzuk arautu ere.

20. artikulua. *Muga egiten duten uretan egindako arrantza.*

Beste lurraldeekin muga egiten duten uretan, eta arrantza garaiari, harrapaketa kopuruari, neurriei, beitei eta beste baldintza orokor batzuei dagokienez, Debekuei buruzko Agindurik zorrotzenak xedatutakoak jarraituko da, Nafarroarekin muga egiten duten tarteetan izan ezik.

21. artikulua. *Izokin atlantiarra.*

Bidasoa ibaiako nazioarteko tartean, izokina nahiz ibaietako bestelako ur espezieen arrantza garai eta baldintzak tarte horretako arrantzari buruzko Erregelamenduak berak ezarritakoak izango dira. Ibai horretako Gipuzkoako aldean Nafarroako Debekuei buruzko Aginduan xedatutakoari jarraituko zaio. Gipuzkoako gainerako ibaietan debekaturik egongo da izokina harrapatzea.

22. artikulua. *Arrantza-gunea mugikortasun murriztuko pertsonentzat, 15 urteko baino gazteentzat eta 65 urte baino zaharrentzat.*

Leitzarano ibaian, 2015eko apirilaren 5etik (barruti intentsiboaren itxiera) eta uztailaren 31 artean, hil gabeko arrantzan

quiere especie en todos los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como la comercialización de los cangrejos capturados.

Artículo 17.º *Permisos de pesca para el año 2015.*

Los permisos para el acceso a los cotos de pesca de Gipuzkoa se otorgarán a través de un sorteo anual que tendrá lugar en el Federación Territorial de Pesca de Gipuzkoa, en el que podrán participar libremente todos los pescadores en posesión de licencia vigente.

Las solicitudes para entrar en el sorteo se podrán recoger en las Sociedades de Pesca de Gipuzkoa y en la propia Federación de Pesca. Las solicitudes se entregarán en las oficinas de la Federación (Paseo de Anoeta 5, Local 129, 20014 San Sebastián) del 1 al 31 de diciembre.

A través de la solicitud se podrá acceder a los cotos: Leitzarano I y II, Araxes, Arantzazu, Lareo, Arriaran, San Lorenzo, Zelai y el coto de cangrejo señal de Leitzarano. En los cotos Arantzazu, Lareo y Arriaran los pases sobrantes del sorteo realizado en la Federación se adjudicarán asimismo por sorteo en las siguientes sociedades: para el Coto de Arantzazu en Pago-Uso de Oñati, para los Cotos de Lareo y Arriaran en Aitzorrotz de Beasain. En el caso del Oria la Federación dispondrá los lugares de expedición de los pases diarios.

